# zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida




ZIZURKILGO UDALA kultura euskara

www.zizurkil.com uztaila 2007 50. zenbakia UDABERRIA

Aurrera Plaza 3, 20159 ZIZURKIL • 943 692495

ziba batean euskara magalean






Informazio gehiago
Aurrera Plazako
Udal Bulegoetan.
**943 692495**

## Kultura

### 30 ekaina — Zizurkilgo Koadrilen Eguna

13'00etan: Koadrilen poteoa.

14'00etan: Koadrilen bazkaria Joxe Arregi Plazan. Koadrila bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta bertan edaria egongo da guztientzat.

Ondoren: Mahai jokoak.

### "Zizurkilen Barrena" Beka

Zizurkilgo Udalak "Zizurkilen Barrena" Beka deitu du, Zizurkilgo emakume baserritarren beharrak jaso eta behar hauekin diagnosi bat egiteko. Lana euskaraz egingo da eta "ZIZURKILGO EMAKUME BASERRITARREN LANA, AISIA, KULTURA ETA GIZA ESPARRUKO BEHARRAK" izenburupean aurkeztuko da. Hori jasotzeko Udalak berak gomendatutako baserrietara joan eta bertako 18-80 urte bitarteko emakumeei inkesta bat egingo die bekadunak.

Lana paperean eta CDan aurkeztuko da eta hiru ataletan banatua egongo da:

a) Egindako inkestak banan-bana bilduta.
b) Zehaztutako esparruetan bildutako ondorioak, gaika ordenatuta.
c) Adin atalen ondorioak, aurreko atalean zehaztutako esparruei erreferentzia eginez.

Bekadunak LH II-ko titulazioa edo baliokidea izan beharko du gutxienez, EGA edo antzekoa, baserri mundua hurbiletik ezagutu, informatika ezagutzak eta elkarrizketak egiten esperientzia. Eskaera irailaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko da eta bekadunaren izena urriaren 21ean antolatuko den Azoka Berezian jakinaraziko da. Bekak 3 hilabeteko iraupena izango du. Informazio gehiago: Zizurkilgo Udal Bulegoak, 943-692495.

## Uda Kirola



8-16 urte bitarteko haurrei zuzenduta:

Olaederra Kiroldegian (Villabona): Aerobic, cycling, igeriketa, multiekintzak, tenisa eta capoeira..

Hipika: uztailaren 30etik abuztuaren 10era eta abuztuaren 20tik 31ra. Poni-Pottok Elkartean. 60 euro.

Surf eta body board: uztaila eta abuztuan, Zurriolako hondartzan. 56 euro.

Piraguismo: uztailaren 16tik 21era eta abuztuaren 6tik 11ra, Txaraman. 28 euro.

## Gaztedia

10-13 uzt. **Kanpaldia:** Ostargik antolatuta, Donostia, Zarautz, Zumaia, Villabona eta Zizurkilgo gazteentzat, uztailaren 10etik 13ra, 13-16 urte bitarteko gazteentzat Mundakan. Hondartza, piraguismo, … ondo pasatzeko aukera bikaina!. Prezioa: 35 euro. Izenemateak: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan (943-692495) edo Mirian eta Natxo kale hezitzaileei (664-368-301).

23-27 uzt. **Erakusketa:** Street Art ikastaroan aritu diren gazteek skate taulen erakusketa jarriko dute Atxulondo Kultur Etxean. Inaugurazioa: uztailaren 23an 17'00etan. Ordutegia: goizez eta uztailaren 25 eta 27an 16'00etatik 19'30era.

## Euskara

**Dirulaguntzak** Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen Ikastaroetan parte hartzen duten zizurkildarrei Udalak dirulaguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Informazio gehiago: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.

**Oporretan euskaraz** 2007-07-20: OPORRETAN EUSKARAZ udaleku irekien amaiera festa.

**OPOR ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU. ZER OTE? IRAILEAN BUELTATUKO DA.**

## LIBURUTEGIA



### HELDUAK:

**LIBURUAK**

LA HISTORIA OCULTA DEL MUNDO / Paul H. Koch
APAIZAC OBETO! / Jon Maia
PORTUKOPLAZK / Firmen Uribe
MAILUAREN ODOLA / Aingeru Epaltza
DIORAMAK / Patxi Iturregi
LA HERMANA / Sándor Márai
LA REINA OCULTA / Jorge Molist
KAFKA EN LA ORILLA / Haruki Marukami
LA VIDA ES UN GUIÓN / Isabel Coixet
LA VIDA CON JAN / Marianne Fredriksson
LA HISTORIA DE LISEY / Stephen King
TXANTXA. QUICK / Patxi Zubizarreta
NORK BERE OZEANOA / Xavier Etxaniz Rojo

**DVD´ak**

NOMADAK TX
ROSARIO TIJERAS
CARTAS DESDE IWO JIMA
DIAMANTE DE SANGRE
EN BUSCA DE LA FELICIDAD

### GAZTEAK LIBURUAK

OYEME CON LOS OJOS / Gloria Cecilia Díaz
ANAREN BARAKADEA / Jordi Sierra I Fabra
MARTAREN INFERNUA / Pasqual Alapont
NIMA, NAMTXEKO SERPA / Joseph-francesq Delgado
GOIZEKO ZAZPIAK / Nora Arbelbide Lete
DIAMANTEZKO MIRARIA / Joxemari Arteaga
INORK IKUSI EZIN DUENA / Sinclair Smith
ZERUKO ATEETAN DEIKA / Jordi Sierra I Fabra

### UMEAK LIBURUAK

HAMAR OILO GARA / Sylvia Dupuis
GU BAI BIZKORRAK / Corinne Dreyfuss
BEOTHUC / Jon Maia
MUNDUKO ADISKIDERIK ONENA / Carl Norac
JOLASTEN AHAZTU ZAIT! / Josefa Etxarri-césar Oroz
NI EZ NAIZ TXOTXOLO…! / AIZPEA GOENAGA – Kilo Goenaga
ZERGATIK BICI DA BASOAN TXANOGORRITXUREN AMONA? /
ENKARNI GENUA – Jon Zabaleta
BABAYAGA / Rebecca Dautremer (Ilustratzailea)